



2013

---

IRAUNKORTASUNARI  
BURUZKO MEMORIA

---



**VICINAY**  
CADENAS, S.A.



The future of mooring





# INDEX

01

.4.

AURKEZPENA

02

.5.

JUAN IGNACIO VICINAY,  
VICINAY CADENASEKO  
PRESIDENTEARI EGINDAKO  
ELKARRIZKETA

03

.8.

JESÚS NAVAS, VICINAY  
CADENASEKO  
ZUZENDARIARI EGINDAKO  
ELKARRIZKETA

04

.11.

GERTAERA  
GOGOANGARRIAK

05

.14.

KATE SENDOA

05.1

.16.

SEGURTASUNA DUGU  
HELBURU

05.2

.18.

KALITATEAREKIN  
KONPROMETITUTA

05.3

.19.

INGURUMENAREKIKO  
ARDURATSUAK

05.4

.20.

BERRIKUNTZARI LOTUAK

05.5

.24.

TALDE ESPIRITUA

05.6

.26.

BALIOA SORTUZ

06

.30.

ALIANTZAZ OSATUTAKO  
KATEA

06.1

.32.

GEURE HORNITZAILEEKIN  
ELKARTUTA

06.2

.33.

GEURE BEZEROEKIN  
KONPROMETITUTA

06.3

.38.

PERTSONAK DITUGU  
HELBURU

06.4

.44.

GIZARTEARI LOTUTA

07

.49.

KOMUNIKAZIO KATEA

08

.53.

AINTZATESPENAK

# 01

## AURKEZPENA

### ERRONKA, LIDERGOA, BERRIKUNTZA

“ Urte ugari daramagu ainguraketa lineak (kateak, girgiluak, kableak, aingurak, eta abar) fabrikatzen eta bezeroak horiez hornitzen, mundu osoko itsasoetan barrena dauden ur gaineako gailuak segurtasunez hornitzeko, etengabea aldatzen den ozeanoen mugimenduari aurre eginez, olatu eta haizearen indarrari aurre eginez, eta bere jabetzako urak berreskuratzeke beti prest dagoen natura pilpiragarriari aurre eginez.

Denbora honetan guztian, geure bezeroak gutaz fidatu dira, egoeren arabera neurritan egindako lineez, izan ere, itsasoa inoiz ez baita berbera eremu desberdinetan. Badira sakontasun handiko edo txikiko itsasoak, gazitasun, tenperatura eta bizitza oso desberdinak dituztenak. Eta bertan eraikitzen ditugu ur gaineako gailuak itsas hondora lotzen dituzten finkagailuak, bezero bakoitzak orain dituen, eta etorkizunean izango dituen behar bereziak beti aintzat hartuz.

Urtez urte ekindako erronka hau Vicinay Cadenas osatzen dugun pertsoneri esker da posible. Aurrera egiteko asmoz, 2013an geure kudeaketa ereduak, geure segurtasuna, pertsonen bizikaltatea, bezeroei eskaintzen diegun zerbitzua eta jarduten dugun ingurumena behar bezala errespetatzea ahalbidetzen duten ” jarduerak hobetzen saiatu gara.

# 02

JUAN IGNACIO  
VICINAY, VICINAY  
CADENASEKO  
PRESIDENTEARI  
EGINDAKO  
ELKARRIZKETA





**“GIZAKIAREN ADIMENAK DUEN GAUZARIK ZORAGARRIENA DA IDEIAK SORTU EGITEN DIRELA, IDEIAK ALDATU EGITEN DIRELA, ETA BATZUETAN, UNE BAT ATZERA IMAJINAEZINA ZEN LEKU BATERA ERAMATEN GAITUZTELA”**

**Ainguraketa lineak diseinatzea eta fabrikatzea da duela hainbat urte Vicinay Cadenasek zehaztu zuen zeregina; zeregin hori kate hutsetatik, osagarrietatik eta zuntzeko eta altzairuzko kableetatik harago joan da. Juan Ignacio Vicinayren aburuz, egun enpresa definitzen duena “gauzak egiteko modu pertsonala da”.**

***“Bost urtean behin hobekuntza handi bat egiten dugula esan liteke; hobekuntza hori produktuari lotutakoa, laneko prozesuari lotutakoa, zerbitzuari lotutakoa, zein diseinuari lotutakoa izan daiteke”.***

**Elementu bereizgarri bat:**

“Geure abiapuntua ez dira aurrez bururatutako ideiak, eta ez diogu begiratzen besteen egiteko moduari. Merkatuaren behar aldakorren aurrean malguak izaten saiatzen gara, eta behar horiei erantzuteko gaitasuna dugula uste dut. Ideia ugari ditugun arren, etorkizunean arrakastatsuen izango diren horiei lehentasuna eman behar diegu, hori da egin behar duguna”.

“Mugimendu orok aldaketak eragiten ditu. Aldatzen ez dena guk enpresari buruz dugun ikuspegia da: pertsonen lana atseginez egiteko moduko inguruan topaleku bat sortzea”.

**Balio bat:**

“Erabat gardena den munduan mugitzen gara. Horixe ekarri digu Interneten aroak: denaren berri izan dezakegu. Australian zerbait gertatzen bada, berehala izango dugu horren berri mundu osoan. Gardentasuna oso garrantzitsua da enpresaren baitan. Gardentasuna dena azkartzeko baliagarria delako, batez ere”.

“Datuak mahai gainean jarritz, eta gauzak modu objektiboan aztertuz, ez dago egia jakin ahal izateko ikertzeko beharrik, energia asko inbertitzen dugu horretan. Vicinay Cadenasen gardentasuna enpresaren funtsezko balio gisa txertatzen saiatzen gara”.

**Konpromiso bat:**

“Zama oso astunak darabiltzagu, 500 kilotik gorakoak, eta horrek gerta daitekeen edozein istripu oso larria izatera heltzea eragiten du. Hori dela eta, pertsonen segurtasuna funtsezkoa da guretzat. Planetaren segurtasuna ere, funtsezkoa da guretzat, izan ere, geure ainguraketa linearen batean akatsen bat gertatzen bada, ingurumen hondamendi bat gerta baitaiteke. Guztiz beharrezkoa da guretzat kalitatea eta segurtasuna zaintzea”.

“Geure kate-maila eta osagarriek behar bezala eginda behar dute. Ezin dugu horien inguruko inolako zalantzarik izan. Eta, izan ere, ez dugu inolako zalantzarik. Gainera, hain segurtasun handia eskaintzen duten kateak fabrikatzeko gaituta dagoen enpresa bakarra da gurea, mundu osoan, geure kontrol sistemek eskaintzen baitigute horren bermea: geure kate-mailaren bat kalitate maila horretara heltzen ez bada, berehala ematen da horren berri eta aldatu egiten da”.

**Zehaztutako norabidea:**

“Denak dira garrantzitsuak Vicinay Cadenasen, denek azal ditzakete haien ideiak. Baina garrantzitsua da bakoitzak bere lana ongi egitea,

baten batek bere lana egiteari uzten badio, gainerakoek haiena egiteari utzi behar diotelako egin gabe dagoen hori egiteko, eta hori hondamena izan daiteke”.

“Hori ederki ikusten da belaz nabigatzen denean: brankan soka behar bezala jartzerik ez badugu, atzekoak haienak askatzen hasten dira, eta azkenean, lemazainak ere utzi behar du bere postua. Horixe gertatzen da batzuetan, norbait leku okerrean zegoelako; berriro dagokion lekuan jartzen duzunean, dena ondo doa. Eta hori ikustea taldeko liderrei dagokie. Horri dagokionez, gure enpresan oreka oso egokia dugula uste dut”.

**Apustu bat:**

“Vicinay Cadenasen ez dago adinagatiko diskriminaziorik, langilea enpresaren baitan haren ibilbide pertsonal eta profesionalaren arabera mugitzen da. Geure langileak gazteak dira; berrikuntza prozesuetan ditugun langileen batez besteko adina 28 edo 29 urtekoa da. Hala ere, lanean eman dituzten lehenengo urteetan oso azkar lortu dute eskarmentua, prestakuntza teoriko oso ona dute, sektorea zehatz-mehatz ezagutzen dute, eta freskotasun handia dute gauzak egiteko orduan”.

“Ez dago generoagatiko diskriminaziorik ere; orain robotizatutako makinak ditugunez, gizonezko zein emakumezkoek egin dezakete lan geure fabrian. Duela 10 urte, hori ez zen posible, fabrikako lanpostuak gaitasun fisiko oso handia eta denbora luzekoa eskatzen zuelako. Hori horrela izatea ona dela iruditzen zait, enpresaren baitan eratzen den gizartea enpresatik kanpo dagoenaren oso antzekoa delako”.

**Lorpen bat:**

“Berrikuntzari dagokionez, geure enpresan lantalderik onena dugula deritzogu, eta ikertzeko iturria geure bezeroak dira: aurkezten dizkiguten aukerak aztertzen ditugu, batzuetan ur oso hotzetarako proiektuak dira, Artikoko uretarako, adibidez; beste batzuetan sakontasun handiko uretan egin behar dugu lan, horrek guztiak geure produktuaren xehetasunak hobeto ezagutzera behartzen gaitu, fisikaren ikuspegitik, matematikaren ikuspegitik, mekanikaren ikuspegitik, eta beste hainbat ikuspegitatik”.

“Azken urteotan, aurrerapauso handiak egin ditugu ergonomiaren eta robotikaren esparruetan; ezinezkoa litzateke gaur egun egiten duguna duela hamar urte genituen makinekin egitea”.

**Erronka bat:**

“Geure bezeroei eskaintzen diegun zerbitzua hobetze aldera, etengabean egiten ditugu berrikuntzak. Gure ustez, hobekuntzek ez dute mugarik, eta etengabean hobetzea da enpresa geldirik ez egoteko, eta etorkizunean iraunkorra izaten jarrai dezan lortzeko modua. Bost urtean behin hobekuntza handi bat egiten dugula esan liteke; hobekuntza hori produktuari lotutakoa, laneko prozesuari lotutakoa, zerbitzuari lotutakoa, zein diseinuari lotutakoa izan daiteke”.

“Orain 6. graduko kateak egiteko gaitasuna dugu, eta merkatua 5. graduan dago oraindik. Diametro batetik bestera igarotzeak konponbidea behar duten arazo berriak eragiten ditu. Aurten inoiz baino produkzio handiagoa izango dugu: 30 mila tona produzituko ditugu. 2014rako dugun aurreikuspena enpresaren maximoetara heltzea da, tonatan, fakturazioan, katearen tamainan, eta abarretan”.

**Indargune bat:**

“Sektorean liderrak bagara, geure bezeroekin etengabean komunikatzen garelako da. Haiek bidaltzen diguten inputa jasotzen dugu, eta haien beharrei erantzuteko ditugun bide eta ezaguera-iturriak martxan jartzen ditugu, horretarako Euskal Teknologia Sareaz, teknologia zentroeiz, unibertsitatez eta geure enpresako ezagueraz baliatuz. Hori guztia lanean jartzen dugu eta harmaila bat gorago joaten saiatzen gara”.

“Hurrengo bost urteetan igoko dugun harmailar zein den jakin nahi baduzu, ez dakit zein izango den, hori bezeroek bidaltzen diguten inputaren arabera izango baita, eta baita teknologia zentro eta unibertsitateek duten ezaguera gaitasunaren arabera ere; eta zer esanik ez, guk geuk dugun ezaguera mailaren arabera. Garrantzitsuena zera da, prozesuak funtzionatu egiten duela, azken batean, helburuak ez dira abiarazten diren prozesuak bezain garrantzitsuak. Lidergo hori egotea posible egiten duen 100 pertsonatik gorako kidego bat dagoela esan dezakegu, eta enpresak horren finantzaketarako bideak jartzen dituen dela esan daiteke”.

**Juan Ignacio Vicinay**  
Vicinay Cadenas S.A.-ko Presidentea

A portrait of Jesús Navas, a man with dark curly hair, wearing a dark blazer over a light blue and white striped shirt. He is smiling slightly and looking towards the camera. The background is a blurred outdoor scene with hills and buildings.

# 03

JESÚS NAVAS,  
VICINAY  
CADENASEKO  
ZUZENDARIARI  
EGINDAKO  
ELKARRIZKETA

## “FAMILIA ENPRESA BAT GARA, HORREK DAKARREN GUZTIAREKIN, ETA GUZTI-GUZTIEI ESKAINTZEN DIEGU AUKERA BERDINTASUNA”

Tamainarik handiena duen kate bat, altzairu gradu handiagoak, korrosioa minimizatzen duten produktuak, konektoreak hobetzea, kateen kalitatea neurtzeko proiektu berritzaileak, soldadura eta propietate mekanikoetan egindako hobekuntzak, eta ur gainerako egiturak diseinatzeko eta garatzeko erronka berriak. Horiek dira 2013ko gertaera gogoangarrietako batzuk.

---

*“Merkatuan existitzen ez diren irtenbideak eskaintzen ditugu. Altzairuek, robotizazioek, makinek, eta abarrek zer nolako eboluzioa duten aintzat izaten dugu, besterik ez, eta hori ikusirik, azkenik, zerbait desberdina egin dezakegula ikusten dugu”.*

---

## Urte oparoa izan dela esan daiteke?

Orain hamarkada oso batean zehar egindako lanaren emaitza ikusten ari garela esan daiteke, duela urte batzuk pentsaezina zen zerbait lotzen eta gauzatzen aritu den pertsona-talde batek egindako ahaleginaren emaitza. Horren adibide da, besteren artean, ez guk, ez beste inork, sekula egin ez duen kate bat fabrikatu izana. Aurten R4 eta R5 altzairu-graduekin egindako katea entregatu ahal izan dugu, Australiako proiektu batentzat.

## Epe luzeko lana.

Geure negozioan eta guri dagokigun merkatuan epe luzea amaigabea da. Horren erakusgarri da 10 edo 15 urte barru egingo dugun horretan dagoeneko lanean dauden taldeak ditugula. Izan ere, hamarkada bat daramagu, beharbada, 10 urteren buruan merkaturatuko diren bestelako gauzen inguruan ikertzen. Kateen esparruan ez ezik, lokailu-sistemen esparruan, ur gainerako plataformen esparruan, eta abarretan. Batzuetan norberak gertatzea nahi duena gertatzen da, hau da, merkatuari aholkatzen diogu.

## Vicinay Cadenas *offshore*aren munduan abangoardia dela esan al daiteke?

Tira, bezeroak beharko duenari aurrea hartzen saiatzen gara. Guk gainerakoek egiten duten gauza bera egingo bagenu, ziurrenik, beste enpresaren batek baldintza hobeak eskainiko litzioke bezeroari, epeei edota produzitzeko gaitasunari dagokionean. Ez gara, ez enpresarik handiena, ez azkarrena edo merkeena, baina bagara zerbait desberdina egiten dutenak. Merkatuan existitzen ez diren irtenbideak eskaintzen ditugu. Altzairuek, robotizazioek, makinek, eta abarrek zer nolako eboluzioa duten aintzat izaten dugu, besterik ez, eta hori ikusirik, azkenik, zerbait desberdina egin dezakegula ikusten dugu. Geure enpresa, eta Bilbao eta Bizkaia mundu osoan zehar aintzatetsi ditzaten atsegin dugu.

## Nola lortzen duzue bereizgarri duzuen kalitate estandarra mundu mailan mantentzea?

Oso malguak izanda. Duela zenbait urte, Vicinay Cadenasen lan egiten dugunok, merkatuaren egoera aldakorretara egokitzea ahalbidetu diguten zenbait hitzarmen egin genituen. Zurruntasun handia izan ohi da lanarekin lotutako gaietan, guk, aldiz, malgutasunaren alde egin dugu. Adibidez, oporren kasuan, oporrak aldatu behar badira, aldatu egiten ditugu. Lan-egutegiari dagokionez, txandakako lana ezartzen dugu. Brasilen, Suedian, Txinan eta Bilbon fabrikak dituen enpresa-talde baten kide garenaz ohartzen gara. Geure bezeroak mundu osoan zehar daude kokatuta, eta horrek egunean 24 orduz irisgarri egotera behartzen gaitu, ordutegi guztietan.



### Ongi bateratzen al dira familiako bizitza eta lanekoa etengabean irisgarri egote horrekin?

Egunean 24 orduz lan egiten duen enpresa izateak ez du esan nahi pertsonak ordu gehiagoz lan egin behar dutenik. Vicinay Cadenaseko langileek 8 orduko lanaldia dute. Nahiago dugu, beharrezkoa denean, kontratu berriak egitea, geure egitura malgua mantendu ahal izateko, aparteko orduak egitea baino. 300 pertsona garenez, 300 egoera desberdin ditugu, geure arazo pertsonalak, eta familia eta lana bateratzeko moduak desberdinak dira. Pertsonak dira guri axola zaizkigunak, badakigu haiek aintzat izanda, eta haien beharrak aintzat izanda, gainerako guztia errazagoa dela. Horretaz gainera, irisgarritasun hori lortu ahal izateko, bezeroari jakinarazi egiten diogu noiz aurkituko dituen haien etxeko beharrak asetzeko behar dituen pertsona egokiak. Izan ere, bezeroaren etxean egotearen aldekoak gara.

### Globalean pentsatu, tokikoan ekin.

Munduko beste herrialdeetan enpresak zabaltzen ditugunean, langile gehienak bertakoak izan ohi dira. Horri esker, bestelako kulturak, bestelako merkatuak, eta, geure lehiakideen aurrean, bestelako beharrak ezagutzeko aukera izan dugu.

### Ikuspegian dago koska.

Egia esan, ikuspegia modu egokian gauzatzea ahalbidetzen digun kudeaketa eredua erabiltzean dago koska. Kalitatearen eta Bikaintasunaren EFQM ereduaz ari naiz, autoebaluazioa egiteko eta etengabeko hobekuntza-prozesuak zehazteko bide gisa. Eredu horren gakoetako batek erakundea prozesuen arabera egituratzean datza, parte-hartzean eta zeharkakotasunean oinarrituz. Hau da, geure lantaldeak hainbat eremutako pertsonen osatzen dira. Adibide bat ematearren, normalean makina batean kate-mailak fabrikatzen diharduen pertsona batek, lanaldiaren zati bat beste arloetako 15 pertsonekin batera igarotzen du, aipatutako talde horietako batean. Taldean estrategiak eztabaidatu eta ezartzen dira, eta enpresako hainbat alderdiren inguruan duten ikuspegia ematen da. Hori horrela egiten dugu, gure iritziz estrategia jakin batzuk hobekien zehatz ditzakeen pertsona produktua zuzenean fabrikatzen ari dena dela deritzogulako. Baditugu ere berariaz eta aldi baterako sortutako taldeak, zeregin zehatzak egiteko sortzen direnak.

### Zein da Vicinay Cadenaseko langile baten profila?

Denetarik dugu, ingeniariak, filosofoak, kazetariak, abokatuak, ekonomistak, itzultzaileak, Industria, mekanika, elektrizitate eta elektronika LH amaitu berri duten gazteak, eta ikasketak burutu ez dituzten arren, praktikan gaitasun bikaina azaltzen duten pertsonak. Aniztasun handia dugu profilei dagokienez. Geuretzat garrantzitsuena langile guztiak

geure proiektuarekin bat etortzea da, asko zaintzen dugu hori, prestakuntza jakin bat izatea baino. Badakigu, bai gure produktua, bai gure merkatua oso arruntak ez direla, eta horrexegatik, langileei behar duten berariazko prestakuntza emateaz arduratzen gara.

### Zuena bezalakoa proiektu baten inguruan guztiak ados egotea lortzeak lidergo gaitasuna behar du.

Geure promozio gehienak barnekoak dira. Igoerak edo promozioak langileak aintzatesteko eta motibatze moduetako bat dela pentsatzen dugu. Familia enpresa bat gara, horrek dakarren guztiarekin, eta guzti-guztiei eskaintzen diegu aukera berdintasuna. Baina, noski, irizpide batzuk bete behar dira. Horretaz gainera, belaunaldi-txandarako programa bat dugu: programa horren bitartez, enpresatik atera nahi duten 61 urteko pertsonak, geure “harrobi”ko pertsonen haien ezaguera helarazteko aukera dute. Geure “harrobi”ko langileak aldi baterako kontratuekin hasten diren pertsonak dira, haien zeregin espezifikoak ikasi ahala lanean hasten direnak. Zuzendaritza postuetan pertsona oso gazteei leku ematearen aldeko apustua egin dugu, eta eskarmentu txikiak ekar dezakeen gabezia mentoring eta coaching prozesuekin betetzen dugu. Prozesu horiek eskarmentu handia duten eta enpresatik kanpoko pertsonen eskutik egiten dira.

### Zein erronka izango dituzue 2014an?

Langileen segurtasuna, berrikuntzaren aldeko apustuarekin jarraitzea, eta enplegua mantentzea eta sustatzea ditugu geure lehentasunen artean. Badakigu zer nolako egoera dagoen geure gizartean, eta gure esku dagoen guztia eman nahi dugu egoera hobetzeko. Robotikan, adibidez, hainbat urtetan jarraitu dugun politika batek jauzi teknologiko handia ematea ahalbidetu digu; politika horrek ezartzen duenaren arabera, robotikarako kontratatzen ditugun pertsonen maila goi mailako LHn kokatzen da. Iraganean, makinekin egiten zen lana, gehienbat, eskuz egiten zenez, pertsona berberak 40 urte eman zitzakeen gauza bera egiten. Orain robot bat daukagu, eta horrek hainbat gauza ahalbidetzen ditu, hala nola, kate-maila gehiago egitea, horien kalitatea hobea izatea eta ergonomia hobetzea. Azken batean, robotari esker lana optimizatu dezakegu, langileen osasuna arriskuan jarri gabe. Bestalde, robotikaren esparruan lan egiten dutenek haien prototipo propioak gara ditzakete, haien makina propioak garatu, horien mantentze-lanaz arduratu, azken batean, haien lanean era askotako zereginak izan ditzakete, iraganean ez bezala.

**Jesús Navas**

Vicinay Cadenas S.A.ko Zuzendari Nagusia



“DENAK GATOZ MUNDURA  
ESKU-HUTSIK. HORTIK AURRERA  
ESKURATZEN DUGUN GUZTIA  
MOZKINAK DIRA”

- Sam Ewing -

80ko hamarkada amaieran, etorkizuna aintzat hartzen zuten enpresak haien erakundeetan produktu eta zerbitzuen kalitatea bermatzen zuten nazioarteko kudeaketa estandarrak aplikatzeko beharraz ohartu ziren. Vicinay Cadenas, bere inguruan, aitzindaria izan zen eredu horiek aplikatzeko orduan, eta **1990**ean eskuratu zuen **lehenengo ISO 9001 ziurtagiria**.

Hamaika urte geroago, **2001**ean, bere jarduera garatzen dueneko ekosistemarekiko sentiberatasunari erantzunez, enpresak ingurumen kudeaketa hobetzea erabaki zuen, eta **ISO 14001** ziurtagiria lortu zuen.

**2004**an, enpresa seguru izatea izan zen erronka. Ildo horretan egindako aurrerapausoak **OSHAS 18001** ziurtagiria eskuratu zenean jarri ziren agerian.

Horri jarraitu dioten urteetan, egungo enpresaren filosofiak kudeaketa sistemak osotasun bat bezala aintzatesteko joerari jarraitu dio, kudeaketa sistemak integratu zituen prozesu berria abiaraziz (**SIG**).

Hori horrela, Vicinay Cadenas enpresa osoa kudeatzeko moduagatik erreferentzia izateko nahiaren ondorioz, **2007**an erakundearen esparrurik garrantzitsuenak bateratzen zituen kudeaketa orokor bikainerako eredua ezarri genuen, **EFQM** (Kalitatea Kudeatzeko Europako Fundazioa), alegia.

**2011**n, Euskalit–Bikaintasunerako Euskal fundazioak Vicinay Cadenas enpresak azken urteotan egindako urrats guztien aitortza egin zuen, **Enpresa Bikaintasunaren Zilarrezko Q** emanez.

Etorkizunari begira, geure enpresak robotika eta ikusmen artifiziala bezalako teknologia eta lanerako sistemaren aldeko apustua egiten du orain, geure zerbitzu eta produktuen kalitatea, eta pertsonen segurtasuna eta laneko bizitza hobetzeko asmoz.



iso 9001

1990



Kontreterik gabeko  
kateak

1993



M9 - *Megachainei*  
ekitea

1997



iso 14001

2001



Lehen R5 eskaera

2003



ohsas 18001

2004



EFQM

2007



Kateentzako EPD

2010



Zilarrezko Q

2011



Robotizazioa  
finkatzea

2013





# 05

## KATE SENDOA



“Kausa eta ondorioen etengabeko katean, pentsamendu bakoitza kate-maila bat da; bertan, ondorio bakoitza kausa bilakatzen da, eta kausa guztiak inoiz ondorio izan ziren. Kate amaigabe horretan, kate-maila bakoitza hiru elementuz osatutako aleazioz egina dago: nahia, pentsamendua, ekintza. Nahiak pentsamendua eragiten du; pentsamendua ekintza moduan adierazten da. Gertaera horrek eratzen du patuaren korapiloa.”

- Swami Sivananda -

Ur gaineko gailua ainguraketa lineaz eusten den bezalaxe, geure erakundeak hainbat ildo estrategikori esker eusten dio bere buruari. Kateekin gertatzen den moduan, kate-mailen osotasunari esker lortzen da sendotasuna. Horien artean daude segurtasuna sortzea, kalitatezko produktuak fabrikatzea, geure bezeroen beharrei erantzutea, geure hornitzaileekin aliantza aproposak ezartzea, berritzea, lidergoan bikaintasuna sustatzea, balio soziala sortzea, pertsonak eta haien familiak zaintzea, komunikazioa erraztea eta ingurumena errespetatzea.






# 05.1


## SEGURTASUNA DUGU HELBURU

Istripu larri bat bera ere ez izateko helburuz, 2013an Vicinay Cadenasek arlo guztiekin partekatutako ahalegina egin du, Laneko Arriskuen Prebentzioaren baitan hobetzeko ekintzak bilatzeko asmoz. Partekatutako ahalegin horrek kontzientzia handiagoa harraraztea ekarri du, eta prestakuntza jardueratan, makinerian, robotika eta ergonomian egindako inbertsioetan eta pertsonak haien segurtasun propioaren inguruan sentiberatzean gauzatu da.


ISTRIPU LARRI KOPURUA / ISTRIPU KOPURUA



LARRITASUN-TASA




MAIZTASUN-TASA



[ (Baja eragin duten istripu kopurua / Lanean emandako ordu kopurua) x 10³ ]

ERAGIN-TASA



[ (Baja eragin duten istripu kopurua / Lanean emandako ordu kopurua) x 10³ ]



## 05.2

### KALITATEAREKIN KONPROMETITUA


Vicinay Cadenasek kalitatea du etorkizun iraunkorra eraikitzeko oinarrietako bat. Geure enpresan erabiltzen dugun kalitatea kudeatzeko sistema ISO 9001 estandarrean oinarritzen da, eta DNV, LRQA, ABS eta API Sailkapen Agentziek egiaztatu dute.

Kalitatean bikaintasuna lortu ahal izateko, geure bezero eta hornitzaileekin lan egiteaz gainera, espezializatutako teknologia zentroekin ere egiten dugu lan. Kalitatean etengabea hobetzeko espiritu horrek bultzatuta, 2013an jarraian aipatzen diren ekintzak eraman ditugu aurrera:

► **Phased Array Teknika** NDT (Saiakuntza-teknika ez-suntsitzailea) metodo gisa ezartzea, ohiko PE (Eko Pulstua) teknika ordezkatuz.

► **Duela gutxi pentsaezinak** ziren diametrodun kateak fabrikatzeko **soldatzeko makinak robotizatzea eta horien ahalmena handitzea**.

► **FTT** (First Time Through) **adierazlean lortutako hobekuntza**, hau da, konpondu edo berriro aztertzeko beharrik izan ez duten, eta behar bezala prozesatu diren unitateen ehunekoa.



## 05.3


### INGURUMENAREKIKO ARDURATSUAK

Vicinay Cadenasen estrategiaren oinarria Bizitza Zikloaren Analisisian (BZA) produktu guztiek ingurumenaren gainean duten eragina murriztea da, eta baita gardentasuna ere, eragin horiek Environdec erakunde suediarrek garatutako III Motako Produktuaren Ingurumen Adierazpenen (PIA) bitartez jakinaraziz.

2013ko ekitaldian zehar, edozein *offshore*ko ainguraketa elementuk (kateak, osagarriak) sortutako ingurumenaren gaineko eragina aztertzeko eta jakinarazteko nazioarteko arauak ezartzeko modua aztertu genuen.

Horretaz gainera, geure hornitzaileei (mikroenpresak edo enpresa txikiei) Vicinay Cadenasekin elkarlanean aritzeko gonbidapena luzatu diegu, geure jarduerak ingurumenaren gainean dituen zeharkako eraginak murrizten dituzten ingurumen-kudeaketa tresnen erabilera sustatze aldera.


#### ENERGIA-KONTSUMO ESPEZIFIKOAK 2010-2013 BITARTEAN IZANDAKO EBOLUZIOA



#### HONDAKIN ARRISKUTSU ESPEZIFIKOEN 2010-2013 BITARTEAN IZANDAKO EBOLUZIOA







Etengabea hobetzeko espirtuarekin jarraituz, Vicinay Cadenasek energia-eraginkortasuneranzko bideari ekin dio, jarraian aipatzen diren zereginak garatzen dituen Energia-Kudeatzaile bat kontratatuz:

- Instalazio bakoitzaren kontsumo-patroia egitea.
- Energia-kontsumoak egunero kontrolatzea.
- Kontsumoa murrizteko helburua duen astean behingo eragiketen kontrola abiaraztea.
- Neurgailurik ez zuten elementuetan neurgailuak instalatzea.



## 05.4

### BERRIKUNTZARI LOTUAK

Berrikuntza beharrezkoa da enpresa bide onetik joateko, baina, horretaz gainera, berrikuntza beharrezkoa da ere merkatuak suspertzeko eta gizartearen ongizatea bermatzeko. RISek (Regional Innovation Scoreboard) egindako azken txostenaren arabera, Euskadi “berritzaile aipagarriak” eremuan kokatzen da. Vicinayk 2013ko ekitaldian izan duen Berrikuntzaren Agendak islatzen du **25 ikerketa-proiektutan lan egin dugula: proiektu horietatik 7 produktu berriein lotutakoak dira, 10 produkzio prozesuaren hobekuntzarekin, eta 8 eremu eta aplikazio berrien garapen eta ikerketarekin.**

## 05.4.1

### EZAUGARRI EZIN HOBEAK DITUZTEN KATEAK ETA KONEKTOREAK

Altzairu konposizio berrien ikerketan jarritako ahalegin eta talentuari esker, 2013an **kate eta osagarrietan gradu berriak fabrikatu eta gaitu** ahal izan ditugu. Hori horrela, 2014an geure bezeroek, haien ainguraketa lineatako beharrak asetzeko orduan, aukera anitzagoak izango dituzte kate horiei esker.

Berrikuntzaren bidean zabaldu dugun beste ikerketa bat geuk fabrikatutako produktuek, itsasoan daudenean, duten portaera hobeki ezagutzearekin lotuta dago. Vicinayn, badakigu Mexikoko Golkon dagoen ainguraketa-linea batek izango dituen andeatzea eta korrosioa Australian, Afrikan edo Ipar Itsasoan dagoen batek izango dituenaren oso desberdinak izango direla. Hori dela eta, produktuarekin lotutako ikerketak kokapen geografiko horien azterlanera bideratzen ditugu, kokapen horietan beharrezkoak diren ainguraketa-linea eta aplikazioetara. Hori da, hain zuzen ere, **Fondeoadhoc** proiektuaren helburua. 2013an proiektu horretan lanean jarraitu dugu, **Gerdau Industrial, Azterlan, Tekniker** eta **CSI**rekin partzuergoan, kate eta osagarriek hidrogenoak eta bestelako eragileek eragindako korrosio, andeatze, neke eta ahultzei dagokienez duten portaeraren azterlanean sakontzeko helburuarekin.

Kate eta osagarriek ainguraketa-lineatan daudela jasaten duten **korrosioa murrizteko**, Vicinay konkurrentziatik bereizten da, **Thermal**

**Sprayed Aluminum (TSA)** izeneko **aluminiozko estaldura** bat aplikatzen duelako. Estaldura horren portaera sakon ikertzeko helburuz sortu dugu **Floatsolutions** proiektua. Aurten, baldintza oso gogor eta normalizatuetan egindako hainbat saiakuntzaren ostean, estaldura duten laginek korrosioaren aurrean duten erresistentzia, estaldurarik ez duten laginena baino askoz handiagoa dela ikusi dugu, eta horrek geure produktuaren balio erantsia frogatzen du.

Bestalde, goi-mailako ezaugarriak dituen kateak, kalitatezko konektoreak behar ditu kate-mailak lotzeko, eta ainguraketa linea osatzen duten gainerako elementuek kalitate handikoak behar dute ere. Bezeroek alderdi hori ere balioetsi egiten dute. Hori dela eta, aurten ere **konektore berriak** diseinatzen jardun dugu, MBLaren %100ari eutsiko dion kontreterik gabe katedun konektorea garatzen, eta urrutiko kontrolaz funtzionatuko duen konektorearen garapenean aurrerapausoak eginez.

Azkenik, aurten, kateak kokatzeko proiektuan ere jardun dugu. Proiektu honen helburua **katea** (kontreteduna edo kontreterik ez duena) **identifikatzeko eta trazatzeko sistema** lortzea da, geure bezeroen kateak urrutitik arinago ezagutu ahal izateko.



# 05.4.2

## PRODUKZIO PROZESUAREN HOBEKUNTZAN MURGILDUTA

Ezinezkoa da produktu berri batean berrikuntzak egitea produkzio-prozesua berrikuntza horren arabera aldatu edo egokitu gabe. Horren ildotik, 2013an soldatzea eta propietate mekanikoak hobetzeko lanekin jarraitu dugu. Hori dela eta, bezeroek behar dituzten kate gradu eta diametro berrietara **egokitu dugu** kateen **soldatze eta tratamendu teknikoko prozesua**.

Horretaz gainera, aurrerapauso handiak egin ditugu, soldatze eta tratamendu termikoko parametro ezin hobeak zehazteko orduan, optimizazioa ahalbidetuko duten **algoritmoen** bilaketan. Horri esker, Vicinay ultra erresistenteak izango diren 200 mm-tik gorako diametrodun kateak fabrikatzeko prestatzen da. Gainera, **Chainmatic** kontzeptua lantzen jarraitzen dugu, parametro horiek fabrikatzen ditugun kate-mailen arabera ikertuz, eta horiek fabrikatzen direneko makineriaren portaeraren parametroak aztertuz.

# 05.4.3

## ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EREMUAN ARRETAZ AZTERTZEN

Bada hamarkada bat ur gaineko gailuentzako kateen erabileraren inguruan ikertzen egon garela, haize- eta marea-energia berriztagarrien esparruan. 2013an geure proiektu berritzaileenetako batzuk amaitu ditugu, horietako batzuk 2014an eta 2015ean ezagutzera emango direlarik.

**Hiprwind** proiektuan, Vicinay Europako beste enpresa batzuen arteko elkarlana egiten da, laster *offshore* aerosorgailu bat instalatu ahal izateko.

**Inflow** ere, Europako proiektu bat da, **Technip** buru duena, eta proiektuaren helburua 2015 amaieran Marseillan turbina bertikala duen aerosorgailu bat eta 6 ainguratze-linea finkatzea da.

**Vertiwind** turbina bikoitzaren instalazioarekin, aerosorgailu eremuak unitate gehiago izango ditu.

**Osagarrien produkzio-prozesuak** forjaketa parametroak kontrolatzea ere barne hartzen du. Aurten, erabateko trazabilitate automatizaturako sisteman, **iForjan**, aurrerapausoak egin ditugu. Halaber, dimentsio handiko eta hainbat diseinutan tamaina handiko osagarrietan **materialen propietate mekanikoak hobetzeko** existitzen diren tratamendu termiko aukerak aztertzeke ikerketa lanari ekin diogu.

Halaber, diametro txikiko kateen (70, 76 eta 84 mm) **kontreteen diseinuan eta fabrikazioan** berrikuntzak egin ditugu, produkzio-parametroetan aldaketak eginez, bai materialetan, bai diseinuetan, kate horiek neke handiagoaren aurreko bizitza izan dezaten.

**Nautilus** proiektuan, Vicinayk **Tecnalía, Velatia, Astilleros Murueta** eta **Tamoinen**ekin bat egin du, potentzia handiko (5 MW) *offshore*ko haize-turbina batentzako ur gaineko egitura diseinatzeko eta garatzeko.

Marea-energiaren esparruan, Vicinay buru-belarri ari da lanean **Uhindar** proiektuan, Oscillating Water Column deritzon sistema teknologikoa duten ainguratze-lineak diseinatzuz. Ainguratze-linea horiek 2014 amaieran instalatuko dira.

2013an, **Moorinspect** proiektuarekin amaitu dugu. Britainia Handiko TWIren (Technology Welding Institute) gidaritzapean ainguratze-lineak, funtzionatzen ari direla, ikuskatzeko gai den uhin bidezko ikuskapen-sistema bat garatu dugularik.



# 05.4.4

## I+G+B INBERTSIOAK

2013an, Vicinay Cadenasek merkatuari balio erantsi handiko irtenbideak eskaini dizkio. Irtenbide horiek azken urteotan produktua eta prozesua berritzeko egin diren inbertsioen emaitza dira, eta offshore merkatuan lehiakortasun-abantaila ematen digute.

Horretaz gainera, geure enpresak prozesu industrialak hobetzeko duen inbertsio-politikaren jarraitu du. Inbertsio horien artean daude, besteak beste, segurtasun eta ergonomia gaietan egindako hobekuntzak, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, istripu-tasa %20an murriztea ahalbidetu dutenak.

Aipatzekoa da ere 2013an ikerketa, garapen eta berrikuntzaren esparruan inbertsio handiak egin direla, guztira, 6,6 miloi euroko balio gordina izan dutelarik. Inbertsio horiek enpresak berak, zein bestelako erakundeekin elkarlanean garatutako I+G+B proiektuetan gauzatu dira, produktu, prozesu eta merkatu arloetan. Proiektu horietako askok eskualdeko herri administrazioen, estatuko herri administrazioen, eta Europako herri administrazioen babesa izan dute.






Erakunde baten funtzionamenduaren eraginkortasuna, hein handi batean, norabide berean aurrera egiteko indar guztiak batzeko duen gaitasunaren arabera neurtzen da. Ahaleginak batzeko zeregina taldeko liderrei dagokie.

2013an lidergoaren kontzeptua, eta lider batek izan behar dituen eskumenak berrikusi ditugu. Helburu horrekin, enpresako 80 partaide izan zituzten hainbat lan saio egin genituen, talde osoak Prozesu eta Arloetako liderren zereginaren eta profilaren inguruan partekatzen

duen ikuspegia lortzeko. Egindako lanaren baitan, ASLE aholkularitza erakundearen laguntzarekin prestatutako ebaluazioa egin dugu.

Talde bakoitzak bere liderra ebaluatu du, eta lider bakoitzak bere indargune eta aukerak balioesten dituen txostena jaso du. Lidergo gaitetan, 10etik 7,19ko puntuazioa lortu dugu. Informazio horri esker, lidergoa hobetzeko planei ekin ahal izango diegu 2014an zehar.

## PROZESUEN MAPA







# 05.6

## BALIOA SORTUZ

Vicinay Cadenas familia-enpresa bat da. Enpresaren finantza-politika geure negozioari modu iraunkorrean iraunkortasuna ematen dioten inbertsio egonkor eta epe luzekoetan oinarritzen da. 2012ko emaitzak jarraian dauden grafikoetan ikus daitezke.

# 05.6.1

## EGOERAREN BALANTZEA

	31.12.2013	31.12.2012
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEAK</b>	68.743	71.700
Ibilgetu ukiezina	16.120	15.320
Ibilgetu materiala	24.160	38.807
Taldeko enpresatan eta epe luzerako elkartutakoetan inbertitzea	9.374	460
Epe luzeko inbertsio finantzarioak	60	60
Zerga geroratuagatiko aktiboak	19.029	17.053
<b>AKTIBO KORRONTEAK</b>	55.502	71.237
Izakinak	13.900	14.721
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	37.546	47.576
Taldeko enpresatan eta epe laburrerako elkartutakoetan inbertitzea	3.581	5.192
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	74	252
Aldizkakoketak	71	185
Esku-dirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	330	3.311
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	124.245	142.937
	31.12.2013	31.12.2012
<b>ONDARE GARBIA</b>	49.753	45.174
Funts propioak	-----	44.709
Kapitala	9.165	9.165
Erreserbak	35.544	29.957
Ekitaldiko emaitza	4.542	5.587
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	502	465
<b>PASIBO EZ-KORRONTEAK</b>	25.752	18.401
Epe luzeko zorrak	16.634	9.361
Zerga geroratuagatiko pasiboak	9.118	9.040
<b>PASIBO KORRONTEA</b>	48.740	79.362
Epe laburreko zorrak	5.579	18.295
Taldeko eta epe laburrerako elkartutako enpresekiko zorrak	283	658
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak	42.878	60.409
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	124.245	142.937

\* Balioak mila eurotan daude.



05.6.2

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

	31.12.2013	31.12.2012
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifraren zenbateko garbia	109.261	106.027
Amaitutako produktuen eta fabrikatzeko bidean dauden izakinen aldaketa	(2.062)	2.320
Enpresak haren aktiboarentzat egindako lanak	1.938	1.651
Zuzkidurak	(60.314)	(63.239)
Ustiapenaren bestelako diru-sarrerak	226	585
Langileen gastuak	(13.786)	(13.727)
Bestelako ustiapen gastuak	(21.902)	(20.038)
Ibilgetua amortizatzea	(9.051)	(8.134)
Ibilgetu ez finantzarioaren eta bestelakoen diru-lag. egozteak	228	257
Tresna finantzarioak besterentzeagatikoko kalteak eta emaitza	(973)	0
USTIAPENAREN EMAITZA	3.565	5.702
Diru-sarrera finantzarioak	6	36
Gastu finantzarioak	(1.664)	(1.292)
Arrazoizko balioaren aldaketa tresna finantzarioetan	440	211
Truke aldeak	(9)	(244)
Tresna finantzarioak besterentzeagatikoko kalteak eta emaitza	(973)	0
EMAITZA FINANTZARIOA	(1.104)	(1.289)
ZERGEN AURRETIKO EMAITZA	2.461	4.413
Etekinen gaineko zergak	2.081	1.174
EKITALDIKO EMAITZA	4.542	5.587

\* Balioak mila eurotan daude.

05.6.3

BALIO EKONOMIKO SORTUA ETA BANATUA

Jarraian dagoen taulan, Vicinay Cadenas S.A.k 2013an sortutako balioa, eta balio hori interes-taldeen artean nola banatu den ikus dezakegu, eta baita etorkizunean egingo diren inbertsioei aurre egin ahal izateko atxikitakoa ere.

ZUZENEKO BALIO EKONOMIKO SORTUA (BES)	112.013
ZUZENEKO BALIO EKONOMIKO BANATUA (BEB)	98.420
Hornitzaileak	81.885
Langileak	13.786
Herri administrazioa	108
Gizartea	75
ATXIKITAKO BALIO EKONOMIKOA (ABE)	13.593


\* Balioak mila eurotan daude.

2013ko ekitaldian zehar, enpresak 112 milioi euroko zuzenekobalio ekonomikoa sortu du *offshore* kate eta osagarriak saltzeko jarduerari esker. Balio horren % 87,5 interes-taldeen artean banatu da eta gainerakoa (% 12,5) atxikita geratu da etorkizunean enpresan berriz inbertitzeko. Banatutako balioaren % 83 hornitzaileentzat izan da eta % 14 langileei ordaintzeko.

Herri Administrazioei dagokienez, 108 mila euro ordaindu zaizkiezergatan, baina VCSA, nagusiki, I+G+b eta ingurumenean egindakoinbertsioak saritzen dituzten murrizketa fiskalen onuradun izan ditu.

Zehatz-mehatz, sortutako balioa atxikitako taulan azaltzen denmoduan banatu da interes-taldeen artean:

SORTUTAKO BALIOA INTERES-TALDEEN ARTEAN BANATZEKO MODUA



# 06

## ALIA NTZAZ OSATUTAKO KATEA



“ Inongo gizonik ez da uharte bat, betea berez. Gizon guztiak kontinenteko puska bat, lurrarenparteko dira; itsasoak lur zatia daramanean Europa osoa murrizten da, muinoa, edozure lagunaren etxea balitz bezala; zure etxea balitz bezala. Edozein gizakiren heriotzak murrizten nau, gizadiari loturik nagoelako; eta, beraz, ez galdetu inoiz norengatik ari diren kanpaiak, zugatik ari dira eta. ”

- John Donne -





## 06.1

### GEURE HORNITZAILEEKIN ELKARTUTA


Vicinay Cadenasentzat ezinbestekoa da geure ohiko hornitzaile garrantzitsuenak geurekin elkartutako hornitzaileak izatea; konfiantzan, elkarren arteko errespetuan eta gardentasunean oinarritutako harremana eraikitzen dugu haiekin. Bereizi egiten ditugu geurekin hartutako konpromisoaren arabera. Konpromisoa material eta zerbitzuak hornitzearekin, produktuen garapenarekin, edo aberastasuna sortzen duten irtenbide eta teknologiak eskuratzearekin egon daiteke lotuta.

Geure hornitzaileak hautatzeko irizpideak zenbait baldintzatan oinarritzen dira, hala nola, kalitate, segurtasun eta ingurumen

ziurtagiriak betetzean, gardentasunean, entregatzeko epeen inguruko konpromisoan, geure produktuak fabrikatzen jarraitzeko beharrezkoa den teknologiaren garapenean, eta baita geure harremanak bideragarri egiten dituzten lehiakortasun ekonomikoa lortzean ere. Azken batean, gure bezeroek eskatzen duten guztian.

Horretaz gainera, geuretzat garrantzitsua da materialak edota zerbitzuak hornitze hutsetik harago doazen enprekin lan egitea. 2013an 5etik 4,94ko gogobetetasun-maila lortu dugu geure hornitzaileen artean.

#### GEURE HORNITZAILEEN JATORRIA



#### GEURE HORNITZAILEEN ZIURTAGIRIAK

ISO 9001	ISO 14.000	OSHAS 18.000	Bestelakoak
75%	29%	25%	42%



## 06.2

### GEURE BEZEROEKIN KONPROMETITUTA

2013an nabaria izan da tona kopuru handiko, tamaina handiko eta kalitate handiko proiektuak lortu ditugula, eta horiei esker orain arte oso finkatuta ez zeuden merkatuetan sartu garela. Lehen aldiz jaso ditugu *offshore* industrian, ur gaineko gailuen ainguraketa, erabiltzeko kate hain handien eskaerak; horrek datozen urteetan kate horiek fabrikatzeko erronka itzelaren aurrean jartzen gaitu.

Geure bezeroek egindako eskaeren artean, hauek izan dira handienak: **PRELUDE, ICHTHYS** eta **HEIDELBERG**. Tamaina handiko kateak dira (175, 161 eta 157ko diametrokoak, hurrenez hurren), kalitate handikoak (R4) eta luzera handikoak (1.000 metrotik gorakoak).



VICINAY CADENAS



AGENTZIAK



VICINAY CADENAS  
MERKATARITZA BULEGOAK



2013KO  
PROIEKTUAK

#### ICHTHYS Proiektua (Australia)

Eskaera honekin ø161R4ko 40.000 tona kate eta girgilu fabrikatzen ari gara, 2014 amaieran entregatzeko. Lehen aldia da plataforma bat hainbeste kate eta osagarriekin ainguratzen dela. Elementu horiek, gainera, gai izan behar dira, 40 urtez, mugako baldintza klimatologikoak jasateko. Proiektu honetarako neurria egindako konektore berria diseinatu eta fabrikatu behar izan dugu (geure bezeroek begi onez balioetsi duten lan pertsonalizatua izan da), eta inoiz fabrikatutako *offshore* girgilurik handienak fabrikatu behar izan ditugu, ø161R4koak, hain zuzen ere.

#### PRELUDE Proiektua (Australia)


SBM, TECHNIP eta SHELL bezeroek eskaera honetan eskatu diguten kalitatea inoiz baino handiagoa izan da. Izan ere, proiektu horrek ø175 mm-ko R4 graduko 10.000 tona kate fabrikatzea dakar, munduan dagoen ur gaineko gailurik handienaren ainguratze-sistemaren egiturari jartzeko.

#### HEIDELBERG Proiektua (Mexikoko Golkoa)

Eskaera honen kasuan, luzaroan erresistentzia handia behar zuen ø157 mm-ko R4 kateko 2.000 tona diseinatu eta fabrikatu ditugu, eta luzaroko erresistentzia hori lortzeko, teknologiarik aurreratuena erabili dugu. Hau da, (TSA) aluminiozko estaldurari esker, ainguraketa-linea horren bizitza luzatu egingo da. Horrek erakusten du geure bezeroek gero eta konfiantza handiagoa dutela Vicinayk *offshore* merkatuari ematen dion balio erantsian (I+G+B).

#### CHINGUETTI Proiektua (Mauritania)

Osagarriak manufakturatzeari dagokionez, proiektu honetarako mekanizatze eta doitzeko tolerantzia oso zehatzak behar izan ditugu eta, gainera, hainbat material modu egokian nahastu ditugu: altzairua, kobrea eta altzairu herdoilgaitza. Geure *know-how*ari esker, proiektua arrakastatsua izan da eta bezeroaren gogobetetasun-maila oso handia izan da.





Proiektu horiei ekin ahal izateko, beharrezkoa izan da produkzio prozesuan inbertsio handiak egitea:

- 9. zenbakidun makinan jarritako soldagailu berriari esker, katearen maila handitu ahal izan dugu, eta baita soldaduraren kalitatea bermatu ere.

► 9. zenbakidun makina robotizatzea, soldagailuan kate-mailak ergonomia handiagoz manipulatu ahal izateko.

► 8. zenbakidun makinako aurretiko berotze-labea aldatzea, makinaren produkzio-gaitasuna hobetzeko.
- 8. zenbakidun makinako soldagailuan manipulatzeke gailu berria jartzea, katea ergonomia handiagoz maneiatu ahal izateko.


► (TSA) Aluminiozko estaldura aplikatzeko dorre berria diseinatzea eta eraikitzea.

► 1.500 x 1.000 mm-ko ebakerak egiteko gaitasuna duen zerra bertikala, “ekogurpil” deritzotenen %30etik gora aprobetxatzeari esker, 180.000€-ko aurrezkia ekarri duena.

2010-2013 BITARTEAN FABRIKAZIOAN GERTATUTAKO EBOLUZIOA

VCSAREN PRODUKZIOA	2010	2011	2012	2013
Fabrikatutako katea Kg-tan	19.998.310	21.669.082	26.737.658	29.371.757
Fabrikatutako osagarriak Kg-tan	808.000	561.000	1.039.400	552.400

2013AN AMAITUTAKO KATEAREN SEGMENTAZIOA, TAMAINAREN ARABERA



Amaitzeko, behean dagoen taulan ikus daitekeen bezala, aipatzekoa da merkatuan *offshore* girgiluak izeneko osagarrien eskaera gora egiten ari dela, eta R4 osagarriak fabrikatzeko gehien erabiltzen den kalitatea dela aurten ere.

BEZEROEN GOGOBETETASUNAREN GAINEKO INKESTA

Eskaera bakoitza entregatu ostean, Vicinayk bezeroei inkesta bat helarazten die. Bertan haien eskaeren fabrikazio-prozesuko fase bakoitzarekin izandako gogobetetasun-mailari buruz galdetzen diegu. Geure bezeroak, haien lehentasunak, eta haien kezkak are gehiago ezagutzeko aukera ona da hori, eta Vicinay Cadenasentzat etengabean hobetzeko erreferentzia bat da.

2013ko ekitaldian bezeroen gogobetetasun-maila 5 puntutik **3,7** koa izan da.





## 06.3

### PERTSONAK DITUGU HELBURU

Vicinay Cadenas osatzen duten pertsona guztien beharrak asetzea geure enpresako filosofiaren arauetako bat da. Gutako bakoitzaren garapen profesionala ingurune seguru batean, harmoniaz, errespetuz eta konfiantzaz beteriko batean ekiten dugunean soilik lortuko dugu.

## 06.3.1

### LANEKO GIRO ONA

Enpresa proiektuan parte hartzen duten pertsona guztien arteko harmonia eta ulermena sustatzeko, aurtan ere, **2012-2015** aldirako **Akordio Ekonomikoa** bete dugu, horek epe luzeko egonkortasuna bermatzen digularik..

Akordio hori erakundearen helburu estrategikoetako bat betetzeko pizgarria da: arrakastak partekatu egiten dira, helburuak lortzeagatiko ordainketa aldagarri baten bitartez.


Konpromiso horrek, gainera, erakundearentzat funtsezkoak diren zenbait alderdi sozialetan du eragina: barne prestakuntzan inbertitzea, gaixotasun arruntak eta istripuak eragindako lan utzialdiaetarako soldataren osagarriak handitzea, eta txandako lan kontratuen politika mantentzea, horrek langile-taldea gero eta gazteagoa izatea eragin baitu.

## 06.3.2


### GOGOBESETASUNAREN BILA

Vicinay Cadenasen lan egiten dugunon gogobetetasun-maila ezagutu ahal izateko, bi urtean behingo inkestak egiten ditugu 2007tik. 2013ko azaroan egin genuen laugarren inkesta, % 48ko parte-hartzearekin; inkestaren **emaitzak** azaltzen duenez, **enpresa-proiektuarekiko dagoen gogobetetasun-maila orokorra 5 puntutik **3,68** koa da.**

GOGOBESETASUNAK 2010-2013 BITARTEAN  
IZANDAKO EBOLUZIOA



PARTE-HARTZE MAILAK 2010-2013 BITARTEAN  
IZANDAKO EBOLUZIOA



Inkesta egin dutenek gehien balioesten dituzten alderdien artean, Pertsonen errespetua, Segurtasuna, Ikastea eta Konpromisoa daude. Hobetu beharreko alderdiei dagokienez, Segurtasuna, Aintzatespena, Ikastea eta Konpromisoa daude.



# 06.3.3


## AUKERA BERDINTASUNA

Vicinay Cadenasen bokazioa da gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna duen erakundea izateko lan egiten jarraitzea. 2013an lehenengo **Berdintasun Plana** egin dugu, ADO2ren laguntzari esker. ADO2k Berdintasun Batzordearekin batera egin du lan ildo horretan diagnostiko objektibo bat aurkeztu ahal izateko.


TDokumentuak agerian jartzen du bide luzea egin dela, hamarkada batetik hona emakumezkoak ere egon baitira lanpostu teknikoetan eta erantzukizun handiko lanpostuetan. Hurrengo urteotan urrats gehiago

eman beharko ditugu, emakumezkoek fabrian duten presentzia are gehiago finkatzeko.

Berdintasun Planari esker, jarduteko lehentasunak ezarri ahal izan ditugu, lau ardatzen inguruan: pertsonak berdintasunean hezte eta trebatzea, helburuak taldeko liderren bitartez jakinaraztea, horiek erakundean benetan ezartzea, eta familiako bizitza eta lanekoa bateratzeko politikatan urratsak ematen jarraitzea.



## ADINAREN ARABERAKO BANAKETA



2013an, langileen batez besteko adina **44** urtekoa izan da.



# 06.3.4

## FAMILIAKO BIZITZA ETA LANEKOA BATERATZEA

Egungo gizartean, pertsonen gogobetetasuna lortzeko jorratu beharreko funtsezko alderdietako bat, familiako bizitza eta lanekoa bateratzearena da. Geure erakundean dagoen pertsona bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, eta baita behar desberdinak ere.

Horren ildotik, 2013an jarraitu dugun politika sortu diren beharrak banan-banan aztertzearena izan da, kasu bakoitzean neurria egindako irtenbide batekin erantzun ahal izateko. Irtenbide horien artean daude, besteak beste, ordutegian egindako egokitzapenak, lanaldi murrizketak eta, oro har, lanaldiari ekiteko eta lanaldia amaitzeko ordutegi malgua.

Amatasuna/aitatasuna bezain une garrantzitsu batean pertsonen familiako bizitza eta laneko bizitzaren arteko bateragarritasuna hobetzeko asmoz, 2009tik hobekuntza bat ezarri dugu amatasun baimenetan, horiek 20 astetara arte luzatuz, eta aitatasunagatikoak 17 egunera arte luzatuz.



# 06.3.5

## ETENGABEKO EBOLUZIOA

Enpresa ez da errealitate estatikoa, aitzitik, etengabea ari da eboluzionatzen: giza dimentsioan, haztera daramaten gaitasun estrategikoen garapenean, egungo merkatuan lehiakortasunez mantendu ahal izateko prestakuntza-baliabideak esleitzerakoan.

## GIZA DIMENTSIOA

**2013an 12 pertsona berri sartu dira Vicinay Cadenasen;** jarraian dagoen taulan adierazten den bezala banatzen dira, arloka, eta generoaren arabera.

	FABRIKA	HSEQ*	INFORMATIKA	INGENIARITZA	GUZTIRA
GIZONEZKOA	5	1	-	1	7
EMAKUMEZKOA	2	2	1	-	5
GUZTIRA	7	3	1	1	12

\*Health, Safety, Environment, Quality (Osasuna, Segurtasuna, Ingurumena, Kalitatea).

## HEDATZEN DEN EZAGUERA


Vicinay Cadenasek etengabeko apustua egiten du bere langileen prestakuntza eta trebakuntzaren alde, eta prestakuntzara bideratutako beharrezko baliabideetan ez xuhurtzea du arautzat, prestakuntza barnekoa zein kanpokoak izanda ere. 2013an **275** ikastaro egin ditugu, guztira **25.448** ordu osatuz (lanpostuan egindako prestakuntza barne).

## GAITASUNAK HOBETZEA


I+G+B filosofiarekin jarraituz, 2013an Vicinay Cadenasek garapen profesionalerako plana abiarazi du. Plan hori zenbait gaitasun hobetzean datza, hona hemen gaitasun horietako batzuk: Ekimena, Denboraren kudeaketa, Taldeko lana, Arazoak konpontzea, Lidergoa eta Komunikazioa.

Helburu horrekin, *Mentoring* eta *Coaching* programak abiarazi ditugu Jose Miguel Martínez de Urquijo eta Noelia San Emeterioren eskutik (enpresa kudeaketan aditu profesionalak), eta Susana Santolariaren eskutik (Komunikazio eta Oratorian aditua. Adituok, ikuspegi teoriko eta praktikoaz egin dute lan arlo desberdinetako pertsonekin, euskarri bisuala duten aurkezpenetan komunikazioaren eraginkortasuna hobetzeko.

## PRESTAKUNTZAREN EBOLUZIOA 2010-2013 BITARTEAN, EHUNEKOETAN



## 2013AN EGINDAKO PRESTAKUNTZA, GAIKA




# 06.3.6

## TALENTUA KUDEATZEA

Vicinay Cadenasentzat lehenetasunezkoa da talentu aniztasunari balioa ematen dion erakundea elkarrekin eraikitzea, hori baita, gure ustez, taldean egiten den lan arrakastatsuen gakoa. Helburu horrekin, 2013an zenbait ezagutza eta tresna eskuratu behar izan ditugu, Lanbide Larritasuneko Zentroa (CGP), MBTI eta Belbinen Taldeko Rolak, besteak beste. **Geure enpresako 80 pertsonak ezagutzen dituzte, dagoeneko, tresna horiek.**

Ekimen berri honen helburua **“Talentuen Fabrika” Proiekturako** abiapuntua izatea da, nork bere buruari buruz duen ezaguera profesionala sustatzeko, talentuak aintzatesteko, eta arloko taldeak osatzen dituzten pertsona guztien ekarpena aintzatesteko.







## 06.4

### GIZARTEARI LOTUTA

Lehen esan bezala, ez gara uharte bat, jarduten duguneko ingurune sozioekonomikoari lotuta gaude, eta horrek balioei, harreman sozialei, eta elkartasun jarduerai dagokienez, onartu beharreko erantzukizuna dakar.

## 06.4.1

### PRINTZPIOEN KATEA

Aurten ere, Nazio Batuen Mundu Mailako Hitzarmenari (Global Compact) atxikita jarraitzen dugu. Mundu Mailako Hitzarmenaren Espainiako Sareko kide gisa, enpresek bete beharreko 10 printzipioak betetzeko konpromisoa dugu:

#### Giza Eskubideak

**1. Printzipioa:** Enpresek nazioartean aitoritzen diren giza eskubideak babesteko sostengua eman behar dute eta giza eskubide horiek errespetatu behar dituzte, haien eragin-eremuan.

**2. Printzipioa:** Enpresek giza eskubideen urraketan nahasten ez direla egiaztatu behar dute.

#### Lanerako Arauak

**3. Printzipioa:** Enpresek elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidearen aitortza eraginkorra errespetatu behar dituzte.

**4. Printzipioa:** Enpresek behartutako eta nahitaezko lan molde guztiak ezabatu behar dituzte.

**5. Printzipioa:** Enpresek haurren lana desagerraraztearen alde egin behar dute.

**6. Printzipioa:** Enpresek enpleguari eta okupazioari buruzko diskriminazioa ezereztatzearen alde egin behar dute.

#### Ingurumena

**7. Printzipioa:** Enpresek ingurumenari mesede egingo dion ikuspegi prebentiboa izan behar dute.

**8. Printzipioa:** Enpresek ingurumenarekiko arduratsuago izatea bultzatzen duten ekimenak sustatu behar dituzte.

**9. Printzipioa:** Enpresek ingurumena errespetatzen duten teknologien garapenaren eta hedapenaren alde egin behar dute.

#### Ustelkeriaren aurka

**10. Printzipioa:** Enpresek ustelkeriak izan ditzakeen adierazpen guztien (estortsioa eta eroskeria barne) aurka egiteko egin behar dute.

Konpromiso horren emaitza da aurten ere ildo horietan egindako aurrerapausoak agerian jartzen dituen txostena egin dugula. Urrian Leader Summit 2013 Mintegian izan ginen, eta bertan beste enpresa batzuekin jardun onak partekatzeko aukera izan genuen.



## 06.4.2

### ELKARTASUNA

Iraunkorra den gizartea eraiki ahal izateko, Planetako aberastasunaren banaketaren desoreka jasaten duten pertsonekin, geure enpresak sortzen duen balioaren zati bat partekatzeko konpromisoa dugu. 2013an, hiru hilean behin, hainbat elkartasun- eta sentiberatze-kanpaina abiarazi ditugu, elikagaiak, arropa, jostailuak, ekipamendu informatikoa, eta bestelako tresnak biltzeko asmoz.




Elikagaien bilketa

506  
kg



Ekipamendu informatikoaren bilketa

350  
kg



Jostailu bilketa

220  
kg



Arropa bilketa

150  
kg




# 06.4.3

## ATEAK ZABALIK EGUNA


Urtero egin ohi dugun bezala, 2013an hainbat eragileri zabaldu genizkion atea, geure filosofia eta lan egiteko modua ezagutzera emateko asmoz. Esperientziak partekatzeko modu bat da, eta baita geure loturak indartzeko ere.

2013an bisitan izan ziren **186** pertsonen egindako inkestaren arabera, azaldutako **gogobetetasuna 5 puntutik 4,53**koa da, alderdi horretan aldaketarik gabeko joera dagoela erakutsiz

BISITARIEN GOGOBEKETASUN-MAILA



BALIOESPENA, GUZTIRA



# 06.4.4

## BABESLETZA ETA MEZENASGOA

Gizarte-jarduerako bestelako esparruen hazkundera bultzatzeko asmoz, Vicinay Cadenasek hainbat elkarlan eta babesletza ditu ezarrita, Kirolaren, Teknologia eta Berrikuntzaren, Kultura eta Hezkuntzaren, eta Gazteriaren esparruetan.

► **Kirola.** Tokiko euskal kirolak babesten ditugu, hala nola, arraunketa, igeriketa sinkronizatu eta pilota. Geure produkzio zentroetatik gertu dauden kirol elkarteak babestea nahiago izaten dugu, eta baita oso gutxienez diren kirolak sustatzen dituztenak ere.

► **Kultura.** Kultura iraunkortasunaren pilareetako bat dela deritzogu. Hori dela eta, kokatuta gaudeneko auzoetako bizitza kulturala eta soziala bultzatzeko ekintzak jarri ditugu martxan. Horien artean, aipa ditzakegu, Zwap kidegoaren instalazioetan egindako ikastaro berria, bilerak eta gertakizunak.

► **Teknologia eta Berrikuntza.** Autonomia Erkidegoan zein estatuan sormena eta berrikuntza bultzatzen duten hainbat fundazio eta elkartetako kide gara.

► **Gazteria.** Gazteen laneratzea da geure beste konpromiso sozialerako bat; horretarako **Novia Salcedo Fundazioarekin** eta **Ahalbidetu Elkartearekin** elkarlan aktiboa egiten dugu, mentoringa eginez, eta gazteak lan eskarmenturako kontratatuz. Zerbait berria aipatzearren, 2013an **Lanaldi** proiektu pilotuarekin elkarlanean aritu gara; proiektu horren baitan batxilergoko ikasleek egun bat partekatu ahal izan dute Vicinay Cadenasekin, enpresa baten baitan dauden arloetako zereginak gertutik ezagutzeko.





# 06.4.5

## IRAGANA, ORAINA ETA ETORKIZUNA

### VULCANOREN EGUNA

Aurten ere, geure ohiko ospakizuna den Vulcanoren Egunean, hainbat urtez geure erakundeko kide izan diren, eta ongi merezitako atsedenez gozatzen ari diren pertsonei omenaldia egin diegu. Ohiko bazkariaren ostean, 2013an erretiroa hartu zuten pertsonei Zilarrezko eta Urrezko entseinak eman genizkien.



### GABONETAKO ZORION-TXARTEL TXAPELKETA

Dagoeneko ohitura bilakatu denarekin jarraituz, abenduan Gabonetako Zorion-Txartel Txapelketa antolatzen dugu. 2013an gaztetxoek hain berezkoa duten gogoaz parte hartu zuten, eta aukera polita izan zen familiak enpresako kulturaren sartzeko. Sari banaketa haurrei eskainitako festan egin zen, giroa alaitasunez bete zelarik.



# 07

## KOMUNIKAZIO KATEA







“Gizadiak pairatzen duen gaitz ohikoenetako bat duzu: hurkoekin komunikatzeko beharra.”

- Augusto Monterroso -

Komunikazioa enpresa bat definitzeko, eta haren norabidea partekatzeko gakoetako bat da. Vicinay Cadenasen enpresa osatzen dugun pertsonen artean, eta interes-taldeen artean komunikazioa errazteko hainbat bide eta tresna erabiltzen ditugu. Horren erakusgarri dira 2013ko ekitaldi osoan zehar aurrera eraman diren ekintza eta gertakizunak.

## EL CADENERO

20 urtetik gora daramagu egunkari honetan eguneko berririk garrantzitsuenak, jasotzen ditugun bisitak, antolatzen ditugun gertakizunak, zein forotan parte hartzen dugun, eta abar argitaratzen, eta eguneroko fabrikazioaren berri ematen.

## SIMBIOSIA

Hiru hilean behin, goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandatan, enpresako pertsona guztiak biltzen gara, indarrean dagoen ekitaldiko helburuak berrikusteko. 2013an hedatu den informazio garrantzitsuenaren artean, segurtasunarekin, kalitatearekin eta finantzekin lotutakoa da, eta baita zalantzak eta kezak argitzearekin lotutakoa ere. .

## 2013KO VICINAY TOPAKETAK JARDUNALDIA

Ohikoa denez, otsailean Vicinay Topaketak izeneko jardunaldia egin genuen. Jardunaldian 2013ko ekitaldiaren balantzea egin genuen, eta Zorrotzaurren izan zen, ZWAP kidegoaren instalazioetan.



## HAZTEKO, PARTEKATU

Aberasgarriak izan daitezkeen proposamen eta dinamikak jasotzeko asmoz, hainbat diziplitetako gonbidatuekin antolatzen ditugu hitzaldiak, noizean behin, ordu eta erdiko iraupenarekin. 2013an nanoteknologiaren eta *business intelligence*aren munduko esperientzien berri izan genuen.

## 2013ko OTC AZOKA

Urtero bezala, Vicinay Cadenasek sektoreko azokarik garrantzitsuenean hartu zuen parte 2013an, “Offshore Technical Conference” izenekoan, alegia, taldeko gainerako enprekin batera eta Vicinay Marineren eskutik.



**HOUSTON ETA SINGAPURREN EGINDAKO MINTEGIAK**

2013an zehar Vicinay Marine Taldearen 2 mintegi tekniko egin ziren. Vicinay Cadenasek hizlari bezala hartu zuen parte Houston eta Singapurren egindako mintegietan, eta bertan geure erakundeko hainbat interes-talde egon ziren.

**MY PROJECT**

Geure bezeroekin dugun komunikazioa hobetzeko, eta etengabeko informazio-fluxua mantentze aldera, My Project izeneko aplikazio informatikoa dugu. Bezeroek, aplikazioaren bitartez, haien eskaera nola dagoen ikus dezakete: zein fabrikazio-fase amaitu diren, eta zeintzuk dauden amaitzeke.

**LOTUS NOTES**

Informazio osoa, partekatua eta trabagabea trukatzeko helburuarekin, Vicinay Cadenasen harreman onak elikatzen jarraitzen dugu, Lotus Notes (dokumentuak kudeatzeko tresna) erabiliz. Tresna horri esker, barne komunikazioa mantendu dezakegu. Bisita garrantzitsuei buruzko informazioa, eta enpresari eta sektoreari buruzko bestelako berriak partekatzen ditugu.

**2013KO HOBKUNTZEN LIBURUA**

2013an, urtero bezala, hobekuntzen liburua argitaratu genuen, enpresako pertsonen egindako ekarpenen emaitza dena, eta produktuarekin, sistemarekin eta prozesuarekin lotuta egindako hobekuntzak jasotzen dituen.

**2013KO IRAUNKORTASUNARI BURUZKO MEMORIA**

Azkenik, urtea amaitzen denean, enpresaren hainbat alderdiren ikuspegi orokorraren balantzea egiten dugu, hala nola, antolamenduarena, finantzena, alderdi sozialena, ingurumenarekin lotutakoena...; eta horien berri emateko konpromisoa hartzen dugu. Aurreko ekitaldietako Oroitidazkiekin bezalaxe, 2013ko Oroitidazkiarekin geure zeregina zein izan den laburbiltzea, eta nolakoa izan den jakinarazi nahi dugu, helburu berriak ezartzeko, eta etengabean hobetzea eragingo duten aldaketak kudeatu ahal izateko.



2013ko abenduan, Juan Ignacio Vicinayk, 2014ko martxoan zendu zen Bilboko Alkate Iñaki Azkunaren eskutik jaso zuen “Bilbotar Ilustre” titulua, “bere baloreengatik bereizten den enpresaren buru izateagatik: elkartasuna, zintotasuna, gardentasuna eta gizartearen aurrerapena baloretzat izateagatik”.

2013ko Oroitidazkian Bilbotar Ilustre saria aipatu dugunean, ekitaldi horren amaieran jaso genuenez, Iñaki Azkunaren eskutik, harekiko dugun esker on postumoa adierazi nahi dugu. Beti erakutsi zuen bertako enpresa eta enpresaburuekin arduratzen zela, eta modu berezian erakutsi zion hori Vicinay Cadenas, S.A.-ri. Alkate gisa izan zuen ibilbide profesionalean zehar, geure aliatua izan zen, etengabeko babesa aurkitu genuen harengan, erakunde gisa, hain kuttuna dugun bilbotar gizartean egoten jarraitu ahal izan genezan, eta bertan etorkizun oparoa izan genezan.

Eskerrik asko Alkate Lagun

## HELMENA ETA HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

---

**Enpresa:** Vicinay Cadenas S.A.

**Eremu geografikoa:** Globala.

**Denbora tarte:** 2013.

**Jarduerak:** *offshore* industriarako kate, ainguraketa linea eta osagar-rien hornidura.

**Txostenaren periodizitatea:** urtean behingoa.

**Sozietatearen helbidea:** Particular de Sagardui, 5. 48015 Bilbao, Espainia.

**Telefono zenbakia:** +34 944 891 130

**Fax-a:** +34 944 891 140

Vicinay Cadenasek garapen iraunkorraren hiru alderdiekin (ekonomikoa, soziala eta ingurumenarekin lotutakoa) duen konpromisoa 2013ko Memorian islatu da. Informazio fidagarri eta zehatza guztion eskura jarri nahian, ahalegin guztia egin dugu 2013ko Memorian.

Enpresari buruz edo esku artean duzun memoriari buruz informazio gehiagorako:

[www.vicinaycadenas.com](http://www.vicinaycadenas.com)

[rsc@vicinaycadenas.com](mailto:rsc@vicinaycadenas.com)



